



**Exonomastika  
batzordea**

**2010-VII**

# EXONOMASTIKA-LANAK EUSKALTZAINDIAN

***Dakienak badaki***

***nora dijoan***

***jakiteko,***

***behar duela***


***nondik datorren jakin.***

***(J.A. Artze)***

**Aurrekari bat 1975ean;**  
**Xabier Mendiguren, "Estatu Izenak" in *Euskera*, XX**

(...) Neronek proposaturiko *Estatu* izenen zerrenda *Euskal Akademian* aurkeztu ondoren, **Oregi**, **Lizundia** eta **Zatarain** jaunek zenbait ohar eta proposamen egin zuten zerrenda hau hobetu eta osatu nahiz, eta azkenik, **Imanol Berriatuak** oso laguntza garrantzitsua eskaini dit *Estatu* izenei buruzko ohar eta argitasun ugari iradokiz eta emanek. Ikastolak, kazetaritzak eta euskal kulturgintzak abegi ona egingo diola uste dut *Estatu* izenen zerrenda honi, komunikabideen aurrerakuntza egunean egunean bizkorragotzen ari den mende honetan.

1974-7-26 eta 1974-10-11



# ATZERRIKO ESTATUEN ETA LURRALDEEN IZENEN ORTOGRAFIA

Ingeles ortografia oinharritzat harturik, erregela hauen arabera idatz litezke Estatuen eta Lurraldeen izenak:

1. Ingeleseko *Ca, Co, Cu, Cra, Cro, Cru, Ka, Ko, Ku, Kra, Kro, Kru* bihurtzen dira. Adibidez: Kanada (Canada), Kalifornia (California). Kolombia (Colombia), Kuba (Cuba), Kreta (Crete), Krimea (Crimea), hala egiten dute alemanek.

Baina *Ce, Ci, Cy* ez dira aldatzen. Adibidez: Cebu, Celebes, Ceylan, Cykladak, Cypre. Hala egiten dute alemanek.

2. Ingeles izenen bukaerako *Cia* eta *Tia* Zia bihurtzen dira. Adibidez: Cilizia (Cilicia), Thrazia (Thracia), Dalmazia (Dalmatia), Helvezia (Helvetia).

3. Hastapeneko *S* kontsonanteari, beste kontsonante bat darraionean, *E* bokala jartzen zaio aurretik, oso edo aski ezagunak diren izenetan. Adibidez: Eskandinavia (Scandinavia), Escozia (Scotland), Eslovakia (Slovakia), Eslovenia (Slovenia).

4. *R* kontsonantearekin hasten diren nazio izen modernoei, ez zaie *E* bokala aurretik ezatzen. Adibidez: Rhodesia, Rwanda.

<b>Estatua</b>	<b>Adjektiboa</b>	<b>Hizkuntza</b>
ALBANIA	Albaniar (eskipetar)	Albaniera
ALEMANIA	Alemaniar Aleman Germaniar	Aleman Alemaniera
ANDORRA	Andorratar (1)	
AUSTRIA	Austriar	
BELGIKA (2)	Belgiar	
BRITAINIA HAUNDIA (3)	Britainiar Ingeles	Ingeles
BULGARIA	Bulgariar	Bulgariera
DANIMARKA (4)	Danimarkar Daniar	Daniera
ERRUMANIA	Errumaniar	Errumaniera
ESPAINIA	Espainiar Espainol	Espainiera

1. *Andorrrar* gogorrago eta zailago da ahozkatzeko.

2. Nederlanderaz *Belgie*, ingelesez *Belgium*, alemanez *Belgien*.

3. Askok idazten dute *Britainia*. Hitz hau, *Britania* baino egokiagoa dela uste dugu, arrazoin hauengatik: Ingelesek *Britain* idazten dute, *Spain* (euskarazko *Espainia*) idazten duten bezala / bokal hori *bre-tain* hitzean ere agertzen da.

4. Zenbaitek proposatu duen *Danimarka*, zailagoa da ahotzeko / bokal hori, *daniar* eta *daniera* hitzetan agertzen da. Italiarrek *Danimarka*, idazten dute.

Loiolan, **1981-1-24**ean, onartu zuen Euskaltzandiak **Herri Izendegia** izeneko batzordea, Koldo Mitxelena buru eta Jose Luis Lizundia idazkari zituela, eta **Onomastika** batzordea izena hartu zuen **1983**ko maiatzean. Endonomastika-lanak egin zituen batzordeak, baina exonomastikari ez zion heldu, bazuen eta premia larriagoko lanik, Euskal Herritik irten gabe.

**Herri Izendegia** batzorde iraunkorra

L. Mitxelena, *buru*

J. L. Lizundia, *idazkari*

E. Knorr, *Arabatik*

A. Irigoyen, *Bizkaitik*

J. San Martin, *Gipuzkoatik*

F. Ondarra, *Nafarroa Garaitik*

E. Larre, *Nafarroa Beheretik*

J. L. Davant, *Zuberoatik*

P. Charritton, *Lapurditik*

## 1980ko hamarkada osoan Euskaltzaindiak ez zuen exonomastikako lanik egin.

1990eko hamarkadaren hasieran euskalgintzak urrats handiak  
egin zituen:

- **ETB** 1982tik ari zen lanean.
- ***Euskaldunon egunkaria*** 1990ean sortu zen.
- ***Elhuyar*** eta ***Lur*** entziklopedia-proiektuak ere orduantxe abiatu ziren.
- **Unibertsitateetan** euskarazko ikasketak ugarituz zihoazen.
- ...

**Ezin nabarmenago ageri zen exonomastika landu  
beharra.**

# Lehen lanak 1991-92an agertu ziren:



## EXOTOPONIMOEN EUSKAL FORMAZ

*Donostia, 1991-XI-29*

*Ibon Sarasola*

1.0. Gure artean aski hedaturik dagoen uste baten arabera, bi hautakizun daude kultur hitzen idazkerari dagokionez: bata Europako kultur hizkuntzena, hau da, frantsesarena, ingelesarena, alemanarena..., hitz horiek grekozko iturburuari dagokion eran idazten dituztenena, eta bestea espainol zarpailarena, kultur hitzak hitz arrunten ortografi sistemaren arabera ematen dituena. Euskaraz, gauzak behar bezala egitekotan, grekozko itxuraz eman beharko lirateke kultur hitzok. Hortaz, Euskaltzaindiak hobe zukeen, maileguzko hitz berriei buruzko erabakietan, frantsesaren, ingelesaren, alemanaren bidea hartu balu. Uste beretsuko beste hainbaten iritziz, Euskaltzaindiak ezinbestean makurtu behar izan zuen espainolaren mol-detara, gure kultur egoera eskas eta bada-ezpadakoak hartaraturik; beste hautakizuna, dudarik gabe hobe, errealismoz izan zen baztertua.

Elhuyarren *Munduko leku-izenak* (1991) eta *Munduko pertsona-izenak* (1992)

Ibon Sarasolaren “**Exotoponimoen euskal formaz**” in Euskera XXXVI, 1991.



# Euskaltzaindiak exonomastikari heltzea erabaki zuen 1991n

1991n Onomastika batzordeak, **Endrike Knörr** buru zuela, bi azpibatzerde edo lantalde sortzea erabaki zuen: **Munduko Leku-izenen azpibatzerdea** (Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, José Luis Lizundia, Xabier Mendiguren, Beñat Oihartzabal), Euskal Herritik kanpoko toponimiaz arduratuko dena, eta **Ponte Izenen azpibatzerdea** (Dionisio Amundarain, Marcel Etxehandi, Anton Gurrutxaga, Xabier Mendiguren, José M. Satrustegi), kristau-antropónimo, izen historiko, mitologiko eta abar finkatuko dituenena. Gerora bi azpibatzerdeok bateratu eta **Exonomastika azpibatzerdea** izenekoak sortu zen 1992an.



**Exonomastikako lantaldeak** 1992ko urriaren 23an egin zuen lehen jardunaldia Bilbon. Onomastika batzordekideekin batera elkarte hauetako ordezkariak ere izan ziren:

- Klasikoak S.A.
- Lur eta Euseñor entziklopediak
- UZEI
- Itzultzaileen elkarte
- Elhuyar
- EAEE/IVAP
- EITB
- Liturgia batzordea
- Bibliaren itzultzaileak
- Bikoiztaileak
- Euskaldunon Egunkaria.*

Durangon izan zen bigarren bilera, abenduan. Lantaldea finkatu eta eginkizunak markaturik gelditu ziren.

# 1. mugarrria: **Leioako Biltzarra** (1994)

Euskara batua heldutasunera iritsi zenekoa



Emaitza: Euskaltzaindiaren araugintzaren hasiera

(Exonomastika araugintzan ageri da hasieratik)

# 1993ko batzorde-organigraman ageri da lehen aldiz **Exonomastika lantaldea** Onomastika batzordearen barnean

Jose Maria Satrustegi

Beñat Oihartzabal

Dionisio Amundarain

Martxel Etxehandi


Antton Gurrutxaga

Inaki Irazabalbeitia

Xabier Kintana

Jose Luis Lizundia

Xabier Mendiguren



1992ko urriaren 23an ibilian jarri zen lantalde hark, 1994ko uztailaren lehen egunera arte, guztira **16 bilera** egin zituen Bilbon, Donostian eta Durangon.

Miarritzen 1994ko uztailaren 1ean eta 2an **Exonomastika Jardunaldiak** egin zituen Euskaltzaindiak. Han aurkeztu ziren txostenek osatu zuten Leioako Biltzarraren Exonomastika atala, eta han ezarri ziren oinarriak Leioako Biltzarraren ondorengo araugintza exonomastikoaren lehen faserako.

## Miarritzeko Exonomastika Jardunaldien adierazpena

Jardunaldi hauetan aurkeztu eta eztabaidatu diren **hamar izen-zerrendak** bere horretan garrantzi handikoak izan badira ere, etorkizunean ildo beretik sakonduz egin beharrekoak ez dira inola ere garrantzi txikiagokoak, izan ere izen berezien eremu zabalean oraindik ikerkizun ugari baitago.

(...)

Exonomastika Azpibatzaordearen lan guztietan, eta bereziki jardunaldi hauetan gailendu diren **iritzi-adostasuna** eta **hurbiltze-giroa** ikusirik, etorkizunean ere lankidetzaren modu berean urrats handiak egingo diren itzaropen osoa dugu komunikabide, lexikografi talde, ikasliburugintza-enpresa, erlijio-talde desberdinen argitaletxe, idazle-itzultzaileen elkarte eta Administrazioen esku hartze eraginkorrekarekin.

*Miarritzen, 1994ko uztailaren 2an*

# EUSKALTZAINDIAREN LEIOAKO *ADIERAZPENA*

1. Biltzar hau beste urrats handi bat izan da batasunaren bidean, aurkeztu diren lanen mailagatik eta biltzarkideen artean sorturiko eztabaidengatik (...)

2. **Euskaltzaindiak erabakiak hartuko ditu** hurrengo hilabeteetan hemen eztabaidatu diren gaiei buruz, **bereziki** gramatikari eta **exonomastikari** dagozkienei buruz. Bestalde, ahaleginak egingo ditu hiztegi batuari eta ahoskerari dagozkienak ere, egin arau, ahalik eta lasterren argitaratzeko.

(...)




1994tik aurrera,  
araugintza



## Exonomastikako araugintzaren lehen fasea (1995-1998)

### ARAU-KOPURUA URTEKA



## TOPONIMIA

- (32) Espainiako erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak
- (36) Frantziako errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak
- (38) Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak
- (47) Hizkuntza hilak eta klasikoak
- (51) Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak
- (52) Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)
- (53) Munduko estatuetakoko hizkuntza ofizialak
- (59) Ibaiak
- (60) Aintzirak
- (70) Mundu zabaleko uharte nagusiak

## ANTROPONIMIA

- (66) Santutegiko izen ohikoenak
- (76) Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia
- (82) Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak

## **Exonomastikako araugintzaren bigarren fasea: beheraldia (1999-2002)**

- 1999an bilera batzuk egin zituen azpibatzordeak, baina emaitzarik gabe.
- 2000ko eta 2001eko oroitidazkian Exonomastika azpibatzordea ez da aipatu ere egiten.
- 2002an Andolin Eguzkitzak, euskaltzain oso izendatua izan ondoren, Exonomastika azpibatzordearen ardura hartu zuen.

Andolinen ardurapean piztu zen batzordea.

**Aita santuen izenen** araua prestatu zen 2003an (2004an eman zen arau gisa), eta **Antzinateko eskualdeak** lantzeari ekin zitzaion ondoren.

Lantaldea txikia zen: Andolinez gainera, Xabier Kintana, Gidor Bilbao, Inaki Irazabalbeitia eta Alfontso Mujika.



2004ko martxoaren 24an, Andolin joan egin zitzaigun.

## Exonomastikako araugintzaren hirugarren fasea: uztaroa (2004-2010)

**Jose Luis Lizundia** euskaltzain oso izendatu berria Exonomastika azpibatzaordearen arduradun izendatu zuen Euskaltzaindiaren zuzendaritzak 2004ko maiatzean, Andolin ordezkatzeko. Harrezkero, bera da batzaordearen arduraduna, eta ondoan du beti ere **Xabier Kintana**, duela 19 urte Exonomastika lantaldea sortu zenetik bertan etengabe taldean jardun duen kide bakarra.



## 2004az geroztik, hauek dira Exonomastika batzordearen emaitzak

(Euskaltzaindiaren azken 10 arauetatik 6 exonomastikakoak dira)

- Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak (2004)
- Antzinateko hirien euskarazko izenak (2006)
- Espainiako araua (32. araua), Frantziako araua (36. araua) eta munduko estatuen araua (38. araua) eguneratu, zuzendu eta berritzea (2006-2007)
- Euskal Herri inguruko exonimoak (2006)
- Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak (2007)
- Kosten izenak gomendioa (2007)
- Europako eskualde historiko-politiko nagusiak (2007-2008)
- Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema (2009)
- Europako hiriak (2009)
- Kanpoko leku-izenak euskaraz ahoskatzeko irizpideak (2009)
- Europako toponimia fisikoa (2010)

Lantalde txikia du Exonomastika batzordeak. Beharren arabera, kanpora jo du laguntza bila: **Ivan Igartua**, alfabeto zirilikoaren kasuan; **Lourdes Oñederra**, kanpoko leku-izenen ahoskeraren kasuan.




# Exonomastika batzordea


2007az geroztik, **Exonomastika azpibatzerdea** zena (Onomastika batzordearen barnean) **Exonomastika batzordea** izatea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Aldaketa formal hutsa izan da; lantaldeak berdin jarraitu du lanean. 2010ean honela osatuta dago:


- *Burua*: Jose Luis Lizundia
- *Idazkaria*: Alfontso Mujika
- *Kideak*: Irene Arrarats, Mikel Gorrotxategi, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.
- *Aholkulariak*: Gidor Bilbao, Patxi Galé, Asier Larrinaga, Miren Lourdes Oñederra.





# Batzordearen ohiko lan-prozedura













Informazio **entziklopedikoa**: zer den, noizkoa den, nongoa den, ezaugarriak.





Erdal hizkuntzen informazioa; **jatorrizkoa, gaztelania, frantsesa, ingelesa** eta beste.


Euskarazko lekukotzak: **tradizioan** (OEH, Klasikoak, XX. mendeko corpora) eta **gaur egungo erabileran** (entziklopediak, Ereduzko Prosa, *Berria...*)

**Hautatutakoei buruzko informazioa eskuratzea**

















# Exonomastika batzordearen lan- esparruak

- **Toponimia**
- **Antroponimia**
- **Transkripzioak**
- **Kanpoko izenen ahoskera**
- **Bestelako exonomastika**

# Toponimia

- Toponimia historikoa eta gaur egungo toponimia**
- Toponimia fisikoa eta toponimia politikoa**
- Hurbileko exotoponimia eta urruneko exotoponimia**
- Astronimia**

# Toponimia

Europa fisikoa eta politikoa aski xehe landu eta arautu dira.

1) Hemendik aurrera, gainerako kontinenteetako toponimia fisiko nahiz politikoa landuko da, baina Europako xehetasun-mailara iritsi gabe:

- **Asia eta Ipar Afrika** (toponimia historikoa barne)
- **Afrika**
- **Amerika**
- **Ozeania**

2) Astronimia ere landuko da (planetak, sateliteak, izarrak, asteroideak, konstelazioak...)

# Antroponimia

- ❑ Hagionimia
- ❑ Antzinateko pertsona-izenak
- ❑ Mitologia
- ❑ Erdi Aroko eta Errenazimentuko izenak
- ❑ Errege-erreginen izenak

# Antroponimia

Hagionimia, antzinateko pertsona-izenak eta mitologia oinarritzko mailan landu eta arautu dira.

1) Erdi Aroko eta Aro Modernoko izen batzuk landu beharko dira ([Luther/Lutero](#), [Magellan/Magallaes...](#))

2) Errege-erreginen izenak ere landu beharko dira (noiz egokitu eta noiz ez, nola, izengoitiak...)

# Transkripzioak

- Grekoa eta zirilikoa landu dira
- Arabiera aztertu beharko da
- Gainerakoei buruzko azterketa egin beharko da



# Kanpoko izenen ahoskera

- Gomendio bat egin zen 2009an (158. araua), Osoko Batzarrean horren aldeko iritziak izan zirelako, baina batzordearen asmoetan ez dago bide horretan beste ezer egiterik.

<u>l</u> ll	<u>l</u> l	<u>l</u> j	<u>l</u> l	<u>l</u>	<u>l</u>	<u>v</u> v	<u>j</u>
M <u>l</u> lk	N <u>o</u>	S <u>l</u> ng	H <u>l</u> llo	L <u>l</u> ve	R <u>l</u> ad	W <u>v</u> ndow	Y <u>j</u> es


# Bestelako exonomastika

- **Dinastiak**
- **Gertaera historikoak**
- **Artelanak**
- **Hizkuntzak**
- **Etniak, herriak**
- ...




# Exonomastikako arau-gomendioak

## Arau-kopurua




# Exonomastikan araututako izen- kopurua

Guztira: 3.700 sarrerako corpus exonomastiko arautua



# Exonomastikaren parte-hartzea araugintzan

Arau-kopurua urtez urte





**Exonomastika  
batzordea**

**2010-VII**